**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2014ko UZTAILAK 22 / 22 - JULIO – 2014**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2014/07/22

**HASIERA / INICIO:** 17:00ETAN

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DUTE/EXCUSAN SU ASISTENCIA**
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don Urdaspal Bolinaga Mallabiabarrena jauna
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2014KO MAIATZAREN 27KO OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 27 DE MAYO DE 2014.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2014ko maiatzaren 27ko ohikoa.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 27 de Mayo de 2014.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, gehiengoaren botoarekin, Bilduko Del Amo Cebrian jaunaren abstentzioarekin, **ONARTU EGITEN DU 2014ko maiatzaren 27**ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría y con la abstención del Concejal Sr. Del Amo Cebrian (Bildu), dada su inasistencia a la misma, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **27 de Mayo de 2014.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA.**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS.**

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Kasu honetan, betiko moduan, adieraztea Idazkaritza Orokorrean zuen eskura daudela eta egon direla espediente guztiak, eta hurrengo egunetan ere egongo dira.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): En este punto, simplemente recordar, como siempre, que todos los expedientes han estado y están a vuestra disposición en Secretaría y que lo seguirán estando durante los próximos días.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, PERDIGOI FABRIKAN, MONTORRETA KALEKO 1EAN DAGOEN E-5, UE-2, TS-3 SEKTOREA DEITURIKO LURSAILEAN EGINDAKO AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA, EDORTA OSKOZ URIBASTERRA JAUNAREN ESKARIZ TRAMITATUA, "MONTORRETAS, S.A."-EN IZENEAN. (HIRIGINTZA, OBRA ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2014KO UZTAILAREN 2KOA).**

**TRES.- APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE, DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA E-5 DE LA UE-2, SECTOR TS-3 MONTORRETA KALEA 1, EN LA FÁBRICA DE PERDIGONES, TRAMITADO A INSTANCIA DE DON EDORTA OSKOZ URIBASTERRA, EN NOMBRE Y REPRESENTACIÓN DE "MONTORRETAS, S.A.". (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO, OBRAS Y VIVIENDA DE 2 DE JULIO DE 2014).**

IRAKURRI OSTEAN Hirigintza, Obra eta Etxebizitza Batzordeak igorritako irizpena,

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo,

2014ko uztailaren 2koa, honako hau dioena:

*"Perdigoi fabrikan, Montorreta kaleko 1ean dagoen E-5, UE-2, TS-3 sektorea deituriko lursailean egindako azterketa behin betiko onartzea, bidezkoa bada.*

*Igor Zorrakin Arkitektoak, honako honen berri eman dio batzordeari:*

*Montorreta 1ean dagoen E-5, UE-2, TS-3 sektorea deituriko lursailean egindako azterketaren tramitazioaren berri eman du. Azterketa hori perdigoi fabrikari dagokio, eta Edorta Oskoz Uribasterra jaunak eskatu zuen "Montorretas, S.A." enpresaren izenean eta ordezkaritzan, enpresa hori jarduketa integratuan sartutako lursailaren zati handi baten jabea baita. Aipatutako azterketa Carlos Maurtua Ormaechea eta Catalina Hernández Cardona arkitektoek egin zuten, eta 2013ko abenduan sinatu zen.*

*Xehetasun-azterketa behin-behinean onartu zen 2014ko maiatzaren 23ko ebazpen bidez, udal-arkitektoaren aldeko txostena zuela. Xehetasun-azterketaren xedea da TS-3 lursailari buruzko Plan Partzialeko antolamendu-zehaztapenak osatzea eta egokitzea, eta TS-3 Montorreta I sektoreko EU-2ko Xehetasun-azterketa aldatzea.*

*Alegazioak aurkezteko epea amaitu ostean (2014ko ekainaren 2ko BAO, 103. alea; eta 2014ko ekainaren 5eko Berria eta El Correo egunkariak), INORK EZ du aurkeztu aurka egiteko erreklamaziorik ez oharrik.*

*Azkenik, antolamendurako tresna hau onartzea Osoko Bilkurari dagokio. Izan ere, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.c) artikuluari jarraiki, Osoko Bilkurari dagokio planeamendu nagusiari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen udal-izapideen amaiera onartzea; hortaz, baita xehetasun-azterketa behin betiko onartzea ere.*

*Horrenbestez, botazioa egin da, eta honako hau da emaitza:*

Obras y Vivienda en sesión de 2 de Julio de 2014, del tenor literal siguiente:

*"Aprobación definitiva si procede, del Estudio de Detalle de la parcela E-5, de la UE–2, sector TS-3, Montorreta kalea 1. en la fábrica de perdigones.*

*Igor Zorrakin, Arquitecto, informa a la Comisión que:*

*Se trata de la tramitación del Estudio de Detalle de la Parcela E5 de la Unidad de Ejecución UE-2 del Sector TS-3 Montorreta 1, redactado por los Arquitectos Don Carlos Maurtua Ormaechea y Doña Catalina Hernández Cardona, firmado en Diciembre de 2013, actividad Fábrica de Perdigones, instada por Don Edorta Oskoz Uribasterra, en nombre y representación de "Montorretas, S.A.", propietaria de gran parte del suelo incluido en la actuación integrada.*

*Mediante Resolución de 23 de Mayo de 2014 se aprobó Inicialmente el Estudio de Detalle, con el informe favorable del Arquitecto Municipal, que tiene por objeto completar y adaptar las determinaciones de ordenación pormenorizadas del Plan Parcial del TS-3 y modificar las del Estudio de Detalle de la UE-2 del sector TS-3 Montorreta I.*

*Transcurrido el plazo otorgado para formular alegaciones (B.O.B. nº 103 de 2 de Junio de 2014 y diarios "Berria" y "Correo" de 5 de Junio de 2014), NO se ha presentado reclamación ni observación alguna contra el mismo.*

*Por último, en cuanto al órgano a quien compete la aprobación de este instrumento de ordenación, el artículo 22.2.c) de la Ley de Bases de Régimen Local, atribuye al Pleno la competencia para la aprobación inicial del planeamiento general y para la aprobación que ponga fin a la tramitación de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística; por lo tanto, corresponderá a los Ayuntamientos la aprobación definitiva de los Estudios de Detalle.*

*En su vista la Presidenta somete a votación dando el siguiente resultado:*

- *Aldeko botoak: 5, EAJ-PNV (4) eta PP (1).*
- *Kontrako botoak: 0.*
- *Abstentzioak: 5, PSE-EE (PSOE) (2), Bildu (2) eta Aralar (1).*

*Batzorde honek gehiengo osoz onartu du, eta ondorioz, proposamen hau egin dio Osoko Bilkurari:*

*Lehenengoa.- Montorreta 1ean dagoen E-5, UE-2, TS-3 sektorea deituriko lursailean egindako azterketa behin betiko onartzea. Azterketa perdigoi fabrikari dagokio, eta Edorta Oskoz Uribasterra jaunak eskatu zuen "Montorretas, S.A." enpresaren izenean eta ordezkaritzan. Azterketa Carlos Maurtua Ormaechea eta Catalina Hernández Cardona arkitektoek egin zuten, eta 2013ko abenduan sinatu zen.*

*Bigarrena.- Behin betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea."*

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Xehetasun azterketa hau behin behinean onartu zen 2014ko maiatzaren 23ko Ebazpen bidez, Udal Arkitektoaren aldeko txostena zuela.

Xehetasun azterketaren xedea TS3 lursailari buruzko plan partzialeko antolamendu zehaztapenak osatzea eta egokitzea da eta TS3 Montorreta 1 sektoreko EU2ko xehetasun azterketa aldatzea.

Alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren ez da alegaziorik ezta erreklamaziorik aurkeztu.

Azkenik, antolamendurako tresna hau onartzea Osoko Bilkurari dagokio Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 22.2C artikuluari jarraituz. Osoko Bilkurari dagokio Hirigintza legedian aurreikusitako antolamendu planen eta gainerako tresnen udal izapideen amaiera onartzea. Hortaz, baita xehetasun azterketa behin betiko onespena ere.

- *Votos a favor 5, EAJ-PNV (4) y PP (1).*
- *Votos en contra: 0.*
- *Abstenciones: 5, PSE-EE (PSOE) (2), Bildu (2) y Aralar (1).*

*Esta Comisión, por mayoría, eleva al Pleno del Ayuntamiento propuesta de:*

*Primero.- Aprobar Definitivamente el Estudio de Detalle de la Parcela E5 de la Unidad de Ejecución UE-2 del Sector TS-3 Montorreta 1, redactado por los Arquitectos Don Carlos Maurtua Ormaechea y Doña Catalina Hernández Cardona, firmado en Diciembre de 2013, actividad Fábrica de Perdigones, instada por Don Edorta Oskoz Uribasterra, en nombre y representación de "Montorretas, S.A.".*

*Segundo.- Publicar la aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Bizkaia."*

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Este estudio de detalle obtuvo su aprobación provisional el 23 de mayo de 2014, a través de una Resolución, contando con el informe favorable del Arquitecto Municipal.

El objetivo del estudio de detalle consiste en concretar y adaptar las determinaciones de la ordenación del plan parcial correspondiente a la parcela TS3, así como en modificar el estudio de detalle correspondiente al UE2 del sector 1 TS3 Montorreta.

Finalizado el plazo para la presentación de alegaciones, no se ha presentado ninguna alegación ni reclamación.

Finalmente, en virtud del artículo 22.2C de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, corresponde al Pleno del Ayuntamiento la aprobación de este instrumento de ordenación. Concretamente, corresponde al Pleno del Ayuntamiento la aprobación definitiva de los trámites municipales concernientes a los planes de ordenación y demás instrumentos previstos en la legislación urbanística, incluyéndose, por tanto, la aprobación definitiva del estudio de detalle.

Beraz, proposamena da Montorreta 1ean dagoen E5-UE2-TS3 sektorea deituriko lursailean egindako azterketa behin betiko onartzea eta erabakia Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzea.

En consecuencia, se propone la aprobación definitiva del estudio correspondiente a la parcela denominada sector E5-UE2-TS3 situada en Montorreta 1, para proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

BOZKETA egin ostean.

PREVIA votación realizada al efecto.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, eta Toki Araubideko oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 22,1,c) artikuluak ematen dion eskumena baliatuz, erabaki du:

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, y en ejecución de la atribución que le confiere el artículo 22,1,c) de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, acuerda:

Lehenengoa.- **Montorreta 1ean dagoen E-5, UE-5, TS-3 sektorea deituriko lursailean** egindako azterketa **BEHIN BETIKO** onartzea. Azterketa perdigoi fabrikari dagokio eta EDORTA OSKOZ URIBASTERRA jaunak aurkeztua da "**MONTORRETAS, S.A.**"ren izenean eta bat dator Carlos Maurtua Ormaechea eta Catalina Hernandez Cardona Arkitektoek idatzitako dokumentuarekin, 2013ko abenduaren sinatu zena.

Primero.- Aprobar **DEFINITIVAMENTE** el **Estudio de Detalle de la parcela E-5 de la Unidad de Ejecución UE-2 del sector TS-3 Montorreta 1**, redactado por los Arquitectos Don Carlos Maurtua Ormaechea y Doña Catalina Hernández Cardona, firmado en Diciembre de 2013, actividad Fábrica de Perdigones, instada por DON EDORTA OSKOZ URIBASTERRA, en nombre y representación de la mercantil "**MONTORRETAS, S.A.**".

Bigarrena.- Behin betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Segundo.- Publicar la aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**LAU.- BIDEZKOA BALITZ, DURANGOKO UDALA ETA DURANGALDEKO ADISKIDEEN GEREDIAGA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2014KO UZTAILAREN 16KOA).**

**CUATRO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO A FORMALIZAR ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y DURANGALDEKO ADISKIDEEN GEREDIAGA ELKARTEA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 16 DE JULIO DE 2014).**

IRAKURRI OSTEAN Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordeak igorritako irizpena 2014ko uztailaren 16koa, honako hau dioena:

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 16 de Julio de 2014, del tenor literal siguiente:

*"Kultura Batzordean aho batez onartu egin zen hitzarmen hau sinatzea; zirriborroa batzorde honetara ekartzen da irizpena egin dezan.*

*"Este convenio se materializa en la Comisión de Cultura y con su visto bueno por unanimidad, se remite el borrador a esta Comisión a quien compete su dictamen, este*

*Hitzarmen honen dirua Alkatetzako hitzarmenen partidaren gain joango da. Udal aurrekontuetan dagoen hitzarmen izendunaren diru-kopuruaren gehitzea proposatzen da, 30.000 eurotik 45.000 eurotara.*

*Presidenteak bozkatu egiten du hurrengo emaitza lortuz:*

- *Alde: 5, EAJ-PNV (3), Bildu (1) eta Aralar (1).*
- *Kontra: 0.*
- *Abstentzioak: 3, PSE-EE (PSOE) (2) eta PP (1).*

*Beraz, Durangoko Udalaren eta Gerediaga elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko Ogasun Batzordearen aldeko irizpena izanik, Osoko Bilkurara eramango da*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Gure aldeko bozka iragartzen dizuet eta arrazoi nagusiak dira bat euskaldunak garelako eta 2. durangarrak garelako.

Euskaldunak izanik ez dut uste beharrezkoa denik gogoratzea nolako garrantzia daukan Gerediagak antolatzen duen Liburu eta Disko azokak eta nolako egoera latza pasatzen ari diren eta uste dugu, beste erakunde batzuk egin duten bezala, konpromisoa hartu behar dugula azokak martxan jarrai dezan.

Durangar bezala, eta kontutan izanik guretzat zer suposatzen duen azokak herri honentzat eta bertako ostalarientzat, uste dugu momentu honetan gehitzera goazen diru hau soberan jasoko dutela bueltan gure herriko komertzioek; hau ez da diru-laguntza bat ematea elkarte bati, guk inbertsio moduan ikusten dugu, alde batetik euskal kulturan eta bestalde gure garapen ekonomikoan.

*convenio va con cargo a la partida presupuestaria de Convenios-Alcaldía. Se propone la modificación de la cuantía del convenio nominativo existente en el presupuesto municipal pasando de 30.000.- € a 45.000,- €.*

*Puesto a votación por la Presidenta se da el siguiente resultado:*

- *Votos a favor: 5, EAJ-PNV (3), Bildu (1) y Aralar (1).*
- *Votos en contra: 0.*
- *Abstención: 3, PSE-EE (PSOE) (2) y PP (1).*

*Elevando esta Comisión de Hacienda al Pleno del Ayuntamiento, dictamen favorable de aprobación de la modificación del Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y Gerediaga Elkartea*."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Anticipamos nuestro voto favorable, motivados principalmente por nuestra condición de vascos y durangueses.

En primer lugar, como vascos, huelga decir la importancia que tiene la feria del libro y del disco organizada por Gerediaga, y tampoco hace falta recordar la difícil situación que están atravesando, por lo que estimamos que, al igual que otras instituciones, nosotros también debemos mostrar nuestro compromiso para asegurar la subsistencia de la feria.

Y, como durangueses, considerando la importancia de la feria para este municipio y para su sector hostelero, creemos que este dinero que vamos a agregar revertirá con creces en el sector comercial del municipio; y es que no se trata de una subvención a una asociación; nosotros lo consideramos una inversión en la cultura vasca así como en el desarrollo económico de nuestro municipio.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Aurretiaz esango dut alde bozkatuko dugula.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE)**: Lehenik eta behin eskerrak eman nahi diogu Gerediaga elkarteari bere lanagatik. Durangoko azoka oso garrantzitsua da durangarrentzat bai kulturalki, bai ekonomikoki. Gizartean daukan eragin soziala, kulturala eta ekonomikoa probatuak ditu. Herritik herrirako antolatzen du azoka, gainera herritarrek estimuan daukat: 100.000 bisitari urtero.

Milaka herritarren babesa du, eta gure alderdiarena ere bai, baina beste alde batetik erakundeetatik jasotzen duen babesa ez da nahikoa. Probatuta dago inbertitzen dugun euro bakoitza bikoiztuta bueltatzen zaiola herriari. Horregatik ados gaude proposamen honekin.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Urte asko dira Gerediaga elkartea Durangaldearen alde lanean dabilela eta benetan hau eskertzekoa da, gure herriaren izena mundu guztian zabaldu du. Durangok daukan potentziala egun horietarako indartu behar da Durangon dauzkagun aukerak ikusita, horregatik Turismo bulegoaren inplikazioa handiagoa izan beharko litzatekeela uste dugu eta baita ere Durangoko elkarte desberdinena ere. Azoka honi esker Durango Euskal Herriko hiriburu bilakatzen da egun batzuetan. Diru gehiago jasoko du Gerediagak eta seguruenik eskertuko du baina guk uste dugu diruaz aparte beste gauza asko egin ditzakegula instituzioetatik.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Gure aldeko bozka emango dugu.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, Durangoko Udala Eta Gerediaga Elkartearen arteko lankide Hitzarmen izendunaren dirukopuruaren **gehitzea ONARTU EGITEN DU**, 30.000,- eurotik **45.000,- eurotara.**

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Anticipar que vamos a votar a favor.

* Concejala **Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE)**: En primer lugar, queremos dar las gracias a la asociación Gerediaga por su labor. La feria de Durango resulta de vital importancia para la ciudadanía de Durango, tanto desde el punto de vista cultural, como económico, puesto que genera un más que probado impulso en la sociedad, en la cultura y en la economía. Se trata de una feria creada desde el pueblo y para el pueblo, que cuenta con la estima de la ciudadanía, con 100.000 visitantes cada año.

Cuenta, por tanto, con el apoyo de miles de ciudadanos y también de nuestro partido, pero, sin embargo, no recibe el suficiente apoyo por parte de las instituciones. Está probado que cada euro que invertimos en esta iniciativa es recuperado por duplicado por nuestro municipio. Por tanto, apoyamos la propuesta.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: La asociación Gerediaga lleva muchos años trabajando a favor del Duranguesado, dando a conocer el nombre de nuestro municipio por el mundo entero, lo cual se merece nuestro más sincero agradecimiento. En vista de las posibilidades con las que cuenta nuestro municipio, creemos que ese potencial de Durango debería verse reforzado durante esos días, a través de una mayor implicación por parte de la Oficina de Turismo así como de las diferentes asociaciones de Durango. Y es que, gracias a esta feria, Durango se convierte por unos días en la capital de nuestro país. Gerediaga recibirá una mayor ayuda económica, lo cual seguramente agradecerá; no obstante, creemos que el apoyo, más allá de ceñirse al área económica, podría abarcar muchos más aspectos.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Votaremos a favor.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, **APRUEBA** la **modificación** de la cuantía del Convenio a formalizar entre el Ayuntamiento de Durango y Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea, pasando de 30.000,- € a **45.000,- €.**

**BOST.- BIDEZKOA BALITZ, DURANGOKO UDALA ETA DURANGOKO KAFE ANTZOKIAREN LAGUNAK ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2014KO UZTAILAREN 16KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordeak igorritako irizpena 2014ko uztailaren 16koa, honako hau dioena:

"Presidenteak bozkatu egiten du hurrengo emaitza lortuz:

Durangoko udalak hitzarmen bat sinatuta dauka Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak elkartearekin; orain ekartzen dena sinatutakoaren osagarria da. Hitzarmen hau 10.000 eurokoa izango da eta, proposamenean jasota dagoen moduan, diru-laguntza zehatza izango da. Hitzarmen honen dirua Alkatetzako hitzarmenen partidaren gain joango da.

Presidenteak bozkatu egiten du hurrengo emaitza lortuz:

- Alde: 5 EAJ-PNV (3), Bildu (1) eta Aralar (1).
- Kontra: 0.
- Abstentzioak: 3, PSE-EE (PSOE) (2) eta PP (1).

Ogasun Batzorde honek Osoko Bilkurara eramango du, onartzeko aldeko irizpenarekin, Durangoko udala eta Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak elkartearen arteko hitzarmena handitzea."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

**CINCO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO A FORMALIZAR ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y DURANGOKO KAFE ANTZOKIAREN LAGUNAK. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 16 DE JULIO DE 2014).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 16 de Julio de 2014, del tenor literal siguiente:

"Puesto a votación por la Presidenta se da el siguiente resultado:

Tenemos un convenio suscrito con Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak, este que se presenta ahora es un complemento a aquel, por importe de 10.000 euros como subvención puntual por lo recogido en la propuesta. Este convenio se financia con cargo a la partida presupuestaria de Convenios-Alcaldía.

Puesto a votación por la Presidenta se da el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5, EAJ-PNV (3), Bildu (1) y Aralar (1).
- Votos en contra: 0.
- Abstención: 3; PSE-EE (PSOE) (2) y PP (1).

Elevando esta Comisión de Hacienda al Pleno del Ayuntamiento, dictamen favorable de aprobación de la ampliación del Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Kasu honetan ere gure aldeko bozka jasoko du. Baina irakurketa kritiko bat egin nahi dugu. Diru-laguntza bat emango diogu Kafe Antzokiari, eurek hainbat batzar izan dituzte talde politikoekin eta batzordean ere eta konpromiso zehatzak eskatzen zizkiguten eta dirua eskaeretariko bat zen, baina eskaera hori askoz zabalagoa da eta ez dugu uste 10.000 euroko diru-laguntza puntual batekin betetzen denik eurek eskatzen ziguten konpromisoa.

Lehenengo eta behin hausnarketa bat egin behar dugu udal honetan kontuan hartzeko guretzat antzokia eragile kultural bat den ala ez. Azpiegitura publiko bat da, kudeaketa pribatuan dagoena momentu honetan, horrela erabaki zelako bere sasoian. Oso eragile garrantzitsua da gure herrian eta kontuan izan behar dugu udal bezala ere hor gertatzen dena ez dela lau lagunek antolatzen duten ekimen pribatu bat, baizik eta herriko agenda kulturalean oso eragile garrantzitsua dela.

Eurek eskatu ziguten, alde batetik, batzorde iraunkor bat eratzea eurekin; lehenengo batzarrak egin dira baina ez dugu ikusten konpromiso irmo bat udal honetan ordezkatuta dauden alderdi guztien artean. Dena den, ez dugu uste diru-kopuru puntual honekin ezer konpontzen denik, pentsatzen dugu beraiekin dagoen lankidetza hitzarmen osoa berraztertu behar dela.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Esan behar dugun lehenengo gauza da abenduko kontu batez ari garela. Abenduan, Kultura batzordean eskatu eta bozkatu zen eta uztailera arte ez dugu ezer jakin 10.000 eurotako diru-laguntza puntual honetaz. Presa handia zeukan erabaki batez ari gara eta zazpi hilabete pasatu dira erabakia gauzatu arte.

Hemendik ere luzatu nahi dugu lan egiteko prestutasuna. Antzokiko mahaiarekin hasi gara batzen, bertan ia alderdi guztiak daude eta pasa den asteko Kultura Batzordean esan genuen irailerako Antzokiak egin dituen proposamenak lantzeko puntu moduan sartu beharko litzatekeela.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Este punto también recibirá nuestro voto favorable. No obstante, quisiéremos hacer una lectura crítica al respecto. Concederemos una ayuda económica al Kafe Antzokia, pero lo cierto es que en las reuniones que han venido celebrando con los diferentes partidos políticos y en la propia comisión, lo que nos solicitaban eran una serie de compromisos, uno de los cuales consistía efectivamente en un compromiso económico, pero sus demandas iban más allá, y no creemos que con una ayuda puntual de 10.000 euros vayamos a cumplir ese compromiso que nos solicitaban.

En primer lugar, debemos reflexionar sobre si este ayuntamiento considera o no esta iniciativa del café-teatro como un agente cultural. Se trata de una infraestructura pública, en manos, en este momento, de un gestor privado, conforme a la decisión adoptada en su momento, y constituye un agente cultural de gran importancia en nuestro municipio, por lo que, como ayuntamiento, no lo podemos considerar como una iniciativa privada impulsada por un grupo de cuatro amigos, sino como un promotor verdaderamente importante en la agenda cultural del municipio.

Entre sus demandas figuraba la constitución de una comisión bilateral permanente, pero, tras las primeras reuniones, no vemos que exista un compromiso firme por parte de todos los partidos con representación en este consistorio. No creemos que con una ayuda económica puntual vayamos a solucionar nada; a nuestro juicio, se debería replantear todo el convenio de colaboración suscrito con ellos.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: En primer lugar, quisiéramos recordar que se trata un tema del pasado mes de diciembre. Se trata de una solicitud presentada y votada en la Comisión de Cultura el pasado mes de diciembre, y hasta julio no hemos tenido conocimiento de esta ayuda puntual de 10.000 euros. Estamos hablando de una decisión, en su momento, urgente, y, sin embargo, han transcurrido siete meses hasta que se ha llevado a cabo.

Desde aquí quisiéramos mostrar nuestra disposición a trabajar a favor de esta iniciativa. Hemos comenzado a reunirnos con la mesa del Kafe Antzokia, en la que se encuentran representados casi todos los partidos; además, en la comisión de cultura de la semana pasada, apuntábamos a la necesidad de que en septiembre las propuestas efectuadas por el Kafe Antzokia fueran incluidas como punto, para proceder a su análisis.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMASEI, 7 Eusko Alderdi Jeltzalea, 5 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BI, 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, Durangoko Udalaren eta Durangoko Kafe Antzokiaren arteko hitzarmen izendunaren diru-kopurua **gehitzea ONARTU EGITEN DU, 10.000,- euroko** gehikuntzarekin, alegia.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIECISÉIS, 7 del Partido Nacionalista Vasco, 5 de Bildu, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: DOS, 2 del Partido Popular.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** la concesión de una **ampliación** de la cuantía del Convenio a formalizar entre el Ayuntamiento de Durango y Durangoko Kafe Antzokiaren Lagunak, por importe de **10.000,- €.**

**SEI.- SAN FAUSTO AUZOAN DAGOEN "KAPITANENA" BASERRIA ESKURATZEKO MC08/14. KREDITU GEHIGARRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2014KO UZTAILAREN 16KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordeak igorritako irizpena 2014ko uztailaren 16koa, honako hau dioena:

***"MC08/14. Kreditu gehigarriaren onarpen proposamena.***

*"Kapitanena baserriko jabeekin sinatutako salerosketa kontratua gauzatzeko proposamena aurkezten da; baserria Faustebide kalean dago eta kirol proiektu baten ondoko gune berde moduan izendatu dute; hau jabeek jarritako baldintza bat izan zen, hau da, baserrian bizi zen pertsona hiltzerakoan kontratua gauzatzeko jarritako baldintza bat.*

**SEIS.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL MC08/14 PARA LA ADQUISICIÓN DEL CASERÍO "KAPITANENA" EN SAN FAUSTO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 16 DE JULIO DE 2014).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal en sesión de 16 de Julio de 2014, del tenor literal siguiente:

***"Propuesta de aprobación de crédito adicional MC08/14.***

*Se presenta la propuesta de ejecutar el contrato de compra-venta suscrito con los propietarios del caserío Kapitanena, sito en Faustebide kalea, calificado como zona verde junto a proyecto deportivo, al haberse cumplido la condición impuesta por los propietarios para su ejecución al fallecimiento de la persona que vivía en él.*

*Diru-kopurua, ondare-transmisio zergak eta notario-gastuak barne, 706.393,95 eurokoa da eta ordainketa soberakinen kargura joango da.*

*El costo, incluido impuesto de transmisiones patrimoniales y gastos notariales asciende a 706.393,95€, cuyo pago va con cargo a remanente.*

*Presidenteak bozkatu egiten du hurrengo emaitza lortuz:*

- *Alde: 3, EAJ-PNV (3).*
- *Kontra: 0.*
- *Abstentzioak: 5, Bildu (1), PSE-EE (PSOE) (2), Aralar (1) eta PP (1).*

*Puesto a votación por la Presidenta se da el siguiente resultado:*

- *Votos a favor: 3, EAJ-PNV (3).*
- *Votos en contra: 0.*
- *Abstención: 5, Bildu (1), PSE-EE (PSOE) (2), Aralar (1) y PP (1).*

*Ogasun Batzorde honek Osoko Bilkurara eramango du, aldeko irizpenarekin, soberakinetik hartuko den 706.393,95 eurotako kreditu-aldarazpena, zergak eta notario-gastuak barne, Faustebide kaleko 26. zenbakian dagoen eta Gallastegi anaiena den Kapitanena baserriaren salerosketa kontratua burutu dadin."*

*Elevando esta Comisión de Hacienda al Pleno del Ayuntamiento, dictamen favorable de la modificación de crédito con cargo a remanente por importe de 706.393,95 € incluidos impuestos y gastos notariales; para la ejecución del contrato de compra-venta del caserío Kapitanena, sito en Faustebide kalea nº 26, propiedad de los Hnos. Gallastegi.*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Kontu-Hartzaile Ordea **Velasco Perez andreak**: Uztailaren 16ko Hazienda, Pertsonala eta Udaltzaingo batzordeak kreditu-aldarazpen proposamenaren irizpena eman zuen Osoko Bilkura honetara ekartzeko.

Kreditu aldaketaren zenbateko osoa 706.393,95 eurokoa da: diru hau *Kapitanena* baserria erosteko izango da. Finantzaketa diru-soberakinaren kontura egingo da eta finantzatuko diren partidak hauexek izango dira: baserriaren erosketa 655.830,55 euro. Honekin lotuta doazen zergak 30.563,40 euro dira eta notaritzako gastuak 20.000 euro.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: La comisión de Hacienda, Personal y Policía Municipal celebrada el pasado 16 de julio emitió su dictamen respecto a la propuesta de modificación de crédito, para su posterior elevación al Pleno.

La modificación de crédito asciende en total a 706.393,95 euros; una suma que será utilizada para la compra del caserío *Kapitanena*, y cuya financiación correrá a cargo del remanente, destinándose a las siguientes partidas: 655.830,55 euros, para la compra del caserío, con unos impuestos derivados de 30.563,40 euros y unos gastos de notaría que ascienden a 20.000 euros.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Nik eskertzen diot Kontu-Hartzaileari emandako azalpenak, baina kasu honetako azalpenak ez dira hor hasten eta durangarrek jakin behar dute zergatik udalak orain erosiko duen baserri bat.

2011. urtean, Eusko Alderdi Jeltzalea proiektu batekin aurkeztu zen hauteskundeetara, San Faustoko Gizarte-etxea, eta horrela iragartzen zuen euren propaganda egiteko erabiltzen duten egun-

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Le agradezco a la señora Interventora la información aportada, pero no es ese el punto de partida; este asunto merece una explicación más exhaustiva, porque la ciudadanía ha de saber por qué el Ayuntamiento va a adquirir ahora un caserío.

En el año 2011, el Partido Nacionalista Vasco se presentó a las elecciones con un proyecto para la construcción de un centro cívico en San Fausto, tal y como lo anunciaban en esa publi-

kari horretan. Hiru urte baino gehiago pasatu direnean ez dakit non dagoen Gizarte-etxe hori. Egunkariaren barrualdean hauxe jasotzen da: "Berehala ekingo zaie San Faustoko gizarte-etxea egiteko lanei, eta haren ondotik helduko zaio Aramotzekoari".

Ez daukagu kultur etxe bat herriarentzat baina dirudienez auzo guztietan Gizarte-etxeak egon behar ziren. Baina hau egin zen herritarrekin kontatu barik eta bat-batean pentsatu genuen San Fausto auzora joatea eta herritarrei galdetzea ea nahi zuten Gizarte-etxea. Auzokideak beste behar batzuk ikusten zituzten, euria egiten duenean arratoiak irteten dira kalera, San Fauston ez daukagu oinarrizko zerbitzu batzuk. Guretzat soberan dago Gizarte-etxea, eta nahi duguna da San Fausto Durangoko beste gune bat izatea eta beste herritarren parekoak garela sinestea.

Baina Gizarte-etxe hori diseinatzerako orduan, urbanistikoki, baserri bat zegoen alboan eta hor erabaki zen, bere garaian, baserria soberan zegoela eta bota egin behar zela. Gizarte-etxearen proiektua bertan behera geratu da baina sinatu zen kontratu bat bertako baserriko jabearekin, eta kontratua bete egin behar da. Gu harremanetan jarri gara baserri horretako jabeekin eta esan digute otsailetik dabiltzala saiatzen udal gobernuarekin hitz egiten jakiteko zer gertatuko den baserriarekin, eta otsailetik hona ez dute lortu batzar bat egitea Gobernu Taldearekin.

Guk eskatzen dugu gai hau duintasunez kentzea gai-ordenetik eta behintzat batzar bat edukitzea baserri horretako jabeekin eta jakitea zer den beraiek nahi dutena. Kontratuak zigor klausula bat jarrita dauka udaletxearentzat, pasatzen den hilabete bakoitzarengatik. Jabeek ez dute nahi klausula horiek erabiltzea, nahi duten gauza bakarra da hitz egitea. Baina ez dute lortu berba egiterik.

Mesedez, kendu puntu hau, egin berba eurekin eta onartu proiektu horrek ez daukala inolako zentzurik. Zer dela-eta, interes orokorraren izenean, orain zazpiehun mila eurotik gora gastatu behar ditugu baserri bat erosten? Honekin lotuta, zer egin daiteke baserriarekin?

cación que utilizan como propaganda, pero, pasados más de tres años, no se atisba ni rastro del centro cívico en cuestión. En las páginas interiores de dicha publicación se indica que "en breve comenzarán las obras del Centro Cívico de San Fausto y después, el de Aramotz".

No tenemos una casa de cultura para el municipio, pero, por lo visto, todos los barrios debían disponer de su propio centro cívico, lo cual, además, se había proyectado sin contar con la opinión de la ciudadanía, por lo que se nos ocurrió acudir al barrio de San Fausto y preguntar a sus vecinos si realmente querían un centro cívico; y los vecinos nos expusieron otras necesidades más apremiantes, puesto que en San Fausto carecemos todavía de algunos de los servicios básicos. Así, por ejemplo, cuando llueve, se puede ver como salen las ratas a las calles. No creemos que el centro cívico sea primordial; lo que queremos es que San Fausto se erija realmente como una zona más de Durango y que seamos considerados como el resto de la ciudadanía.

Pero, a la hora de diseñar el centro cívico, urbanísticamente, resulta que al lado había un caserío, que en su momento se consideró que estaba de sobra y debía derribarse. El proyecto del centro cívico ha quedado descartado, pero existe un contrato firmado en su momento con el propietario del caserío, que debe cumplirse. Nosotros nos hemos puesto en contacto con los propietarios del caserío en cuestión, los cuales nos han indicado que llevan desde febrero intentando ponerse en contacto con el Gobierno Municipal para saber qué sucederá con su caserío, sin que todavía hayan logrado reunirse con el Equipo de Gobierno.

Solicitamos que, por dignidad, este punto sea retirado del orden del día y que, por lo menos, se efectúe una reunión con los propietarios del caserío para conocer sus deseos. El contrato incluye una cláusula de penalización para el Ayuntamiento por cada mes que transcurra, pero los propietarios no desean utilizar dicha cláusula; simplemente quieren hablar del tema, cosa que todavía no han logrado.

Por tanto, retiremos este punto; hablemos con ellos, y aceptemos que este proyecto carece de sentido alguno. Y es que ¿qué sentido tiene que gastemos ahora más de setecientos mil euros en la compra de un caserío? Y ¿qué utilización podría dársele?

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Abstenitu egingo gara.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Alderdi Sozialistarentzat erabateko lehentasuna da Fauste auzoa zaharberritzea. Ez dugu inolako arazorik baserria erosteko proposamenaren alde egiteko, baina, egiari zor, ez dugu ulertzen hartu-emanik ez egotea familiarekin. Izan ere, 2010eko akordioa da, eta errotik aldatu dira gauzak harrezkero. Gizarte-etxe bat eraikitzeko asmoa genuen, eta, azkenean, aurrera ez egitea erabaki da, eta ados gaude, areago, kontuan hartuta hala eskatu dutela auzokideek. Baina ezinbestekoa da familiarekin harremanetan egotea. Horrenbestez, jakin nahi genuke zer hartu-eman izan diren familiarekin eta zer iritzi duten haiek.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: 2010eko gauza baten inguruan ari gara hitz egiten non baserria bai edo bai bota egin behar zen Gizarte-etxea egiteko. Orain, lau urte geroago badakigu Gizarte-etxea ez dela egingo, nahiz eta bere egunean udalak familiarekin etxea erosiko zuela adostu zuen. Ordutik hona gauzak asko aldatu dira.

Jakin dugunez baserriaren jabeak diren senitartekoak otsailetik dabiltza Gobernu Taldearekin batzartu nahian, eta dirudienez gobernu taldeak ez dauka inolako intentziorik beraiekin batzeko. Alkate andrearen idazkariarekin hitz egin dutela badakigu, baina, oraindik, otsailetik eskatuta daukaten arren, ez dute batzartzeko aukerarik izan. Gure galdera da ea ze interes dagoen etxe honetako jabeak ez atenditzeko.

Eskatzen dugu puntu hau erretiratzea eta familiakoekin batzar bat egitea. Eskatzen dugu, baita ere, baserria azkenean erosten bada, auzokideentzako izatea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Aralarrek kontutxo bat kontatu digu, beti bezala, bere ikuspuntutik begiratuta. Hau 2010. urtean ez zuen Gobernu Taldeak sinatu, baizik eta plenoak.

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Nos vamos a abstener.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Para el Partido Socialista es una prioridad absoluta la reforma del barrio de San Fausto. No tenemos ningún problema en votar a favor de la compra de este caserío pero sí es verdad que no entendemos esta falta de comunicación con la familia. Es decir, esto es un acuerdo del 2010, han cambiado mucho las cosas, aquí teníamos previsto la creación de un centro cívico pero se ha decidido no seguir adelante y, estamos de acuerdo, más, cuando los vecinos lo piden. Pero es fundamental la comunicación con la familia. Nos gustaría que nos respondieran qué contactos ha habido con ellos y qué opinión tienen.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: Estamos hablando de un proyecto de 2010, en el que se incluía el derribo sí o sí del caserío, para la construcción del centro cívico. Ahora, transcurridos cuatro años, sabemos que el centro cívico finalmente no va a ser construido, aunque en su momento el Ayuntamiento acordara con la familia la compra del caserío. La situación ha cambiado ostensiblemente desde entonces.

Según hemos podido saber, los familiares propietarios del caserío llevan desde febrero intentando reunirse con el Equipo de Gobierno, el cual, por lo que parece, no tiene la intención de concertar ninguna reunión. Sabemos que han hablado con la Secretaría de la Alcaldía, pero todavía no han tenido la oportunidad de reunirse con el Gobierno Municipal, aunque lo tengan solicitado desde febrero, por lo que nos preguntamos qué interés hay para no querer atender a los propietarios de este caserío.

Solicitamos que se retire este punto y que se efectúe una reunión con los familiares. Asimismo, instamos a que, si finalmente se compra el caserío, sea destinado a los vecinos de San Fausto.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Aralar nos vuelve a contar, como acostumbra, una historia desde un punto de vista totalmente subjetivo. Este contrato del 2010 no lo firmó el Equipo de Gobierno, sino el Pleno.

Egia da denbora pasatu dela baina kuriosoa iruditzen zait gaur Dani Maeztu jauna hona etortzea eta pleno areto honetan hori esatea. Nik ez daukat inolako arazorik puntua erretiratzko, beti ere aktan jasota geratzen bada euren borondatea dela penalizazio hori ez kobratzea eta, bestalde, nik daukadan dokumentu bakarra da orain dela urte betekoa, alegia, kontratua betetzea eskatzen duena. Idazkariari galdetuko diogu.

Es cierto que ha pasado tiempo desde entonces, y la verdad es que me resulta curioso que el señor Dani Maeztu venga hoy a esta sala plenaria con esos argumentos. Yo no tengo ningún problema en que se retire este punto, siempre y cuando quede constancia en el acta de que es voluntad de la familia no recurrir a esa penalización. No obstante, el único documento del que dispongo yo es el de hace un año, en el que se insta al cumplimiento del contrato. Preguntaremos al Secretario.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Alkateak puntu hori kendu dezake gai-ordenatik, baina delako baldintza hori ez dagokio plenoko kideei adieraztea baizik eta baldintza jarri duenari, hau da, kontratua alkatetzaren eta jabegoaren arteko kontratu bat denez, beraiek bakarrik aldatu dezakete kontratu horretan sinatuta dagoena.

Nik ez daukat Aralarreko Bozeramaleak esan duena dudan jartzeko inongo argumenturik, baina eskuartean daukadan dokumentazio bakarra kontratua da eta bertan klausula hori existitu egiten da. Norbaitek eskatu beharko luke exekuzio hori, alegia, atzerapenak erakarriko lituzkeen interesen ordainketa.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: La Alcaldesa puede retirar este punto del orden del día, pero no corresponde a los miembros del Pleno concretar esa condición, sino a quien la haya impuesto, y, en este caso, tratándose de un contrato entre la Alcaldía y los propietarios, únicamente ellos pueden modificar los términos del contrato.

Yo no dudo de lo afirmado por el Portavoz de Aralar, pero la única documentación de la que dispongo es el propio contrato, en el que existe esta cláusula, por lo que podría exigirse su ejecución, lo cual supondría el pago de los intereses devengados de la demora.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Dena den, kontratuan jartzen duena da %1 ordaindu beharko litzatekeela, eta hori gertatzeko aurre-kasua izango litzateke plenoaren erantzukizuna izatea horren ordainketa ez egin izana. Uste dut pleno honekin erakusten dugula nahi hori nahiz eta ez bozkatu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Sea como fuere, lo que se indica en el contrato es que se debería abonar un 1 %, y el precedente de ello sería que el Pleno asumiera la responsabilidad del impago. Creo que en este pleno queda demostrada nuestra voluntad, aunque no se vote.

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Esandakoa baino ezin dut errepikatu. Plenoak bere borondatea adieraz dezake baina kontratuan adierazten dena penalizazio klausula bat da. Hortik aurrerako interpretazioak ez dagozkit niri.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: No puedo más que repetir lo dicho. El Pleno puede mostrar su voluntad, pero lo que viene estipulado en el contrato es una cláusula de penalización. Las interpretaciones que pudieran hacerse más allá de ello no me corresponden.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bada nik sinetsi egingo dut Aralarreko Bozeramaleak esandakoa eta aktan horrela jasoko da. Bertan behera geratzen da puntua.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Pues yo voy a creer lo afirmado por el Portavoz de Aralar, y que conste así en el acta. Se retira el punto.

**ZAZPI.- BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEN MOZIOA, GAZAKO GATAZKARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2014007844, 2014KO UZTAILAREN 18KOA).**

**SIETE.- MOCIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES DE BILDU Y ARALAR, RELATIVA AL CONFLICTO DE GAZA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2014007844 DE 18 DE JULIO DE 2014).**

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Gauza bat azaldu nahi dugu. Pasa den barikuan mozio bat aurkeztu genuen Gaza jasaten ari den injustiziaren inguruan. Atzo, bozeramaleen batzordean, bi pertsona azaldu zitzaizkigun: ez ziren elkarteren batekoak, kontua da bai Durango eta bai Gernika, bonbardatutako hiriak izanik, elkartasuna adieraztea eskatu zigutela deklarazio instituzionalaren bidetik.

Guk nahi duguna da udal honek adieraztea Gazarekiko elkartasuna, eta deklarazio hori alderdi politiko guztien testu bat denez, ondo ikusi genuen. Gaur goizean testu bat adostu dugu; gero Bozeramaleen Batzordea eduki dugu, eta azkenean erabaki dugu Aralarrrek, Alderdi Sozialistak, PNVk eta Bilduk deklarazio hori adostea.

Baina bide batez aprobetxatu nahi dut momentu hau dei egiteko Israel babesten duten markak ez erabiltzeko. Badago kanpaina bat gizartean *Israeli Boikota* deitzen dena eta bertan parte hartzeko deia egiten dugu hemendik.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozeramaleen Batzordeak erabaki du puntu honetan irakurtzea mozioa eta ez pleno bukaeran. Testu honen sinatzaileak gara Aralar, Alderdi Sozialista, Bildu eta EAJ. MOZIOA IRAKURTZEN DU.

Beraz, Bozeramaleen batzordea osatzen duten talde guztiek, Alderdi Popularra izan ezik, onartu egiten dute mozio honen testua:

*"Durangoko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2014ko uztailaren 22an ospatutako ezohiko bilkuran, ahobatez, honako adierazpen instituzioanala onartu du:*

*GAZAREN ERASOAREN GAINEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA*

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: Queremos exponer una cuestión. El pasado viernes, presentamos una moción en torno a la injusticia que está sufriendo el pueblo de Gaza. Ayer acudieron a la Junta de Portavoces dos personas que, aun no perteneciendo a ninguna asociación, nos solicitaron que, siendo Durango y Gernika dos municipios bombardeados, mostráramos nuestra solidaridad con Gaza ante la situación que está padeciendo, mediante una declaración institucional.

Nosotros queremos que este ayuntamiento muestre su solidaridad con Gaza, por lo que, considerando que la declaración es un texto consensuado por los diferentes partidos políticos, nos pareció una buena idea. Hoy a la mañana hemos acordado un texto, tras lo cual, hemos celebrado una Junta de Portavoces, en la que, finalmente, Aralar, Partido Socialista, PNV y Bildu hemos consensuado esta declaración.

Igualmente, quisiera aprovechar la ocasión para efectuar un llamamiento a dejar de consumir marcas que apoyan o colaboran con Israel. Concretamente, invitamos desde aquí a la ciudadanía a que participe en la campaña *Boicot a Israel,* que se está impulsando desde la sociedad.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: La Junta de Portavoces ha decidido leer la moción en este punto, en vez de esperar al final del pleno, siendo los firmantes del texto Aralar, Partido Socialista, Bildu y PNV.

En consecuencia, todos los Grupos integrantes de la Junta de Portavoces, excepto el Partido Popular, ha aprobado el texto de la siguiente Moción:

*"La Junta de Portavoces del Ayuntamiento de Durango, en sesión extraordinaria celebrada el día 22 de julio de 2014, por unanimidad, acuerda:*

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE EL ATAQUE A GAZA*

*Durangoko Udalak, gure udalerriko herritarren ordezkari gisa, eta gogoan izanik duela 77 urte jasan zuen bonbardaketa latza eta zentzugabea, Palestinako herriari sostengua eta elkartasuna adierazi nahirik, honako hau adostu du:*

1. *Dei egitea Israeli Palestinar herriaren aurka une honetan burutzen ari den erasoa bertan behera utz dezan, eta nazioarteko komunitateari eskatzea egin beharrekoak egin ditzala aipatutako helburua lortze aldera.*
2. *Gure gaitzespena adieraztea inguru horrek pairatzen dituen eraso eta giza eskubideen urraketa etengabearen aurrean; era berean, deia luzatzen dugu inplikatuta dauden eragile guztiek biolentziaren erabilpena alboratu dezaten.*
3. *Adierazpen hau Israelgo enbaxadari eta Palestinako agintaritzari helaraztea.*
4. *Udaletxeko balkoian Palestinako bandera xingola beltzarekin jartzea."*

*El Ayuntamiento de Durango, en representación de la ciudadanía de nuestro Municipio, que hace ya 77 años sufrió un terrible e injustificable bombardeo, en apoyo y solidaridad al pueblo palestino acuerda:*

1. *Hacer un llamamiento a Israel para que abandone el ataque que en estos momentos está llevando a cabo contra el pueblo palestino, e instar a la Comunidad Internacional a que presione con este fin.*
2. *Expresar su más profundo rechazo a los ataques y a las constantes vulneraciones de Derechos Humanos que sufre la zona y hacer un llamamiento para que se abandone por parte de todos los agentes implicados el uso de la violencia.*
3. *Trasladar a la Embajada de Israel y a la Autoridad Palestina la presente declaración.*
4. *Colocar la bandera de Palestina con el crespón negro en el balcón del Consistorio."*

**ZORTZI.- BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEN MOZIOA, KUTXABANKI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2014007846 2014KO UZTAILAREN 18KOA).**

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)** Bildu eta Aralar Udal Taldearen izenean, irakurri egiten du aurkezturiko mozioa, Kutxabank buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2014007846 2014ko uztailaren 18koa), eta honako hau dioena:

*"Hainbat aldiz eztabaidatu izan dugu osoko bilkuran etxebizitzaren arazoa eta etxe-kaleratzeen inguruan. Era horretan bi mozio onartu izan dira proposamen zehatzekin, baina bere betetze maila nahiko eskasa izan da. Mozio horietan agerian*

**OCHO.- MOCIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES DE BILDU Y ARALAR, RELATIVA A KUTXABANK. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2014007846 DE 18 DE JUNIO DE 2014).**

* El Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: da lectura a la Moción presentada en representación de los Grupos Municipales Bildu y Aralar, relativa Kutxabank, con Registro de Entrada nº 2014007846 de 18 de Junio de 2014, del tenor literal siguiente:

*"En numerosas ocasiones hemos debatido en el pleno de este Ayuntamiento la problemática de la vivienda y los desahucios. Se han aceptado dos mociones con propuestas concretas, pero su ejecución ha sido bastante escasa. Es las citadas*

*uzten zen finantza erakundeek duten erantzukizuna bai krisi finantzieroaren sorreran, higiezinen burbuilaren sorreran eta etxe-kaleratzeen draman.*

*Gaurko honetan berriro ere botere publikoek finantza erakundeei eskatu beharreko erantzukizunaren gaia eztabaidara ekartzen dugu. EH Bildurentzat beharrezkoa da erakunde publikoei erantzukizuna eskatzea. Erantzukizuna, finantza erakundeekin mantentzen diren harremanak aztertzerako orduan. Diru publikoa, alegia, herritarrek ordaintzen dituzten zerga eta tasengandik lortzen den dirua, finantza erakundeekin kudeatzerako orduan konpromiso sozial eta etiko zehatz batzuk eskatu behar zaizkie. Horregatik, eta kontutan izanik urtero 30 miloi euroko diru kopurua kudeatzen duela udalak, beharrezkotzat jotzen dugu erabaki batzuk hartzea. Bereziki Kutxabank finantza erakundearekin, alde batetik banku horrekin kudeatzen ditugulako udal aurrekontuak eta bestaldetik BBK izanik Kutxabankeko akziodun nagusiena, erakunde horretako administrazio kontseiluko kide izan garelako.*

*Horregatik 2012ko azaroaren 17an osoko bilkurak onartutako mozioan dei berezi bat egiten genion Kutxabanki. Horregatik 2012 urtetik, Ogasun batzordean astero eskatu izan dugu (eta aste guztietan 2 urtetan zehar eskaera asko dira), eta idatziz, BBK entitateak Durangon dituen etxebizitza hutsen datua eta era berean Durangon egin duen etxe-kaleratzeen kopurua. Eskaera berdina hilero osoko bilkura honetan egin dugu ere baina momentuz erantzunik ez.*

*Arestian esandakoari jarraituz, Durangoko osoko bilkurak onartzen du:*

1. *BBK edota Kutxabank erakundeari exijituko dio, Irailerako Durangon dituen etxebizitza hutsen datua helaraztea eta era berean Durangon, azken 5 urtetan, egin duen etxe-kaleratzeen kopurua helaraztea ere.*

2. *Aurreko puntuan jasotakoa bete ezean, Durangoko udalak, ahal duen bezain laster, Kutxabankekin duen harreman guztiak eten egingo ditu eta beste finantza erakundeekin kudeatuko ditu udal diruak."*

*mociones se dejaba al descubierto la responsabilidad de las entidades financieras en el origen de la crisis financiera, la burbuja inmobiliaria y en drama de los desahucios.*

*Esta vez también, traemos a debate la responsabilidad que las fuerzas públicas debemos de exigir a las entidades financieras. Para EH Bildu es necesario exigir responsabilidades a las entidades públicas. Responsabilidad, a la hora de mantener relaciones con las entidades financieras. Cuando hablamos de dinero público, ese que se logra a través de impuestos y tasas que la ciudadanía aporta, debemos de pedirles compromisos sociales y éticos concretos a la hora de gestionar estas cantidades con las entidades financieras. Por ello, y teniendo en cuenta que el Ayuntamiento gestiona anualmente 30 millones de euros vemos necesario adoptar unas decisiones. Sobre todo con la entidad financiera Kutxabank, por un lado, por que se gestionan los presupuestos con dicha entidad y por otro, por que BBK es el principal accionista de Kutxabank y por que hasta ahora hemos sido miembros del Consejo de Administración.*

*Por ello, en la moción que se aprobó el 17 de noviembre del 2012 se hacia un llamamiento especial a Kutxabank. Por eso, desde el año 2012 en cada comisión de Hacienda (son muchas las comisiones que ha habido desde entonces), y por escrito, hemos solicitado el número de viviendas vacías que la BBK dispone en Durango y a la vez el número de desahucios que ha ejecutado en nuestro municipio. Esa misma petición la hemos realizado en esta sala de plenos también pero ha día de hoy no hemos recibido ninguna respuesta.*

*Siguiendo con todo lo anteriormente mencionado, el pleno del Ayuntamiento de Durango aprueba:*

1. *Exigirá a la entidad BBK o Kutxabank para septiembre, que nos haga llegar el número de viviendas que tiene en Durango y la vez nos informe del número de desahucios que han efectuado en los últimos 5 años en nuestro municipio.*

2. *En caso de no cumplir lo acordado en el punto anterior, el Ayuntamiento de Durango romperá todas las relaciones que tiene con la entidad tan pronto como pueda y gestionara las cantidades municipales con otras entidades."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Kutxabanken etorkizunari buruzko mozio bat aurkeztu digute Bilduk eta Aralarrek.

Lehenik eta behin, hizpide hartu nahi genuke, labur-labur bada ere, 2013ko abenduaren 27ko 26/2013 Legea, hots, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko legea.

Izan ere, lege horren bidez, finantza-erakunde horiek beren jatorrizko esparruaren mugetara itzuliko dira ostera ere, beren finantza-jarduerari dagokionez. Hala, txikizkako negoziora mugatuko dira, dagokien jarduketa-eremuan, muga zehatz batzuen barruan, bai arlo materialari dagokionez, bai lurraldeari eta bolumenari dagokienez ere. Azken muga hori dela-eta, Legeak ezartzen duenez, aurrezki-kutxek ezin izango dute hamar mila milioi euro baino gehiagoko aktiboa eduki ezta 100eko 35etik gorako gordailu-kuotarik ere, lan egiten duten autonomia-erkidego horretan. Tamaina-muga horiek gainditsuz gero –eta horixe da Euskadiko aurrezki-kutxen kasua– banku baten bidez kudeatu behar dute beren finantza-jarduera, eta banku-fundazio baten partaidetza izango du banku horrek.

Bestalde, hauteskunde-sistema jakin bat ezarri da, bi helburu nagusi lortze aldera: batetik, kutxak ez egotea botere politikoen kontrolpean, administrazio publikoek batzar nagusietan duten ordezkaritza murriztuta, eta, bestetik, kontrol hori interesatu nagusien esku uztea, hots, diru-ezarleen esku.

Banku-fundazioak direla-eta, haien araubide juridikoa zehazten du Legeak. Izatez, orain arteko izaera bereziko fundazioen oinordekoak dira (2010eko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuan –aurrezki-kutxen gobernu-organoei eta haien araubide juridikoaren beste alderdi batzuei buruzkoan– zehaztu ziren izaera bereziko fundazio horiek), eta 100eko 10etik gorako partaidetza dute dagokien kreditu-entitatean. Espainiak onartutako Akordiorako Memorandumak hala eskatuta, ordura arte aurrezki-kutxa izandakoen desinbertsioa egin behar zen pixkanaka-pixkanaka banku-entitateetan, harik eta haien partaidetza-mailaren bidez erakundea kontrolatzeko ahalmenik ez izan arte.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Nos encontramos con una moción sobre el futuro de Kutxabank, presentada por Bildu y Aralar.

Nos gustaría comenzar haciendo una referencia muy breve al punto sobre le aprobación de le Ley 26/2013, de 27 de diciembre, de cajas de ahorros y fundaciones bancarias.

Esta ley supone una vuelta a los límites originales de estas instituciones en lo referido a su actividad financiera. Este se centrará en el negocio minorista y en su ámbito territorial de actuación con una serie de límites: material, territorial y de volumen. En referencia a este último límite la Ley establece que las cajas de ahorros no podrán tener un activo superior a los diez mil millones de euros o una cuota de depósitos por encima del 35 por 100 de los de la comunidad autónoma en la que operen. Si se exceden estos límites de tamaño y este es el caso de las cajas de ahorro vascas han de traspasar su actividad financiera a un banco, que será participado por una fundación bancaria.

Por otra parte, se establece un sistema electoral en virtud del cual se pretenden conseguir dos objetivos fundamentales: evitar el control político de las cajas, reduciéndose la representatividad de las administraciones públicas en las asambleas generales y atribuir dicho control a los principales interesados, que son los impositores.

En cuanto o las fundaciones bancarias, la Ley define su régimen jurídico. Herederas de las fundaciones de carácter especial previstas en el Real Decreto Ley de 9 de julio de 2010, de órganos de Gobierno y Otros Aspectos del Régimen Jurídico de las Cajas de Ahorros, son aquellas fundaciones que tienen una participación superior al 10 por 100 en una entidad de crédito. El Memorándum de Entendimiento aprobado por España exigía que se fuera produciendo una desinversión paulatina de las antiguas cajas de ahorros en las entidades bancarias hasta que su participación alcanzase niveles de no control.

Helburu hori sustatzeko, ondoz ondo diharduten bi neurri aurreikusten ditu Legeak:

- Lehenik eta behin, gaur egun zeharkako garapeneko araubidearen barruan diharduten kutxek, bai, halaber, araudian aurreikusitako mugak gainditzen dituzten kutxek (horixe da gure kasua) banku-fundazio bilakatu behar dute.

- Ondoren, banku-fundazio bilakatutakoan, araubide juridiko zehatz bat ezarriko zaie erakunde sortu berri horiei, finantza-ikuskapena zorrotzagoa izan dadin, kontuan izanda betiere zenbateko kontrol-gradu eraginkorra daukaten beren partaidetzapeko banku-erakundean.

Gure ustez, lege hau funtsezkoa da ekonomia berreskuratzeko, erakundeak gardenagoak izateko eta gobernu korporatiboaren jardunbide onak sustatzeko, eta ekonomiaren finantzazioa bultzatu nahi da haren bidez.

Horiek esanda, aurkeztu zaizkigun bi ekimen horien gainean zer iritzi dugun azalduko dugu orain.

Aurkezpen-hurrenkeran: Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako ekimenak 3 paragrafo ditu ekimenaren azalpenean eta 7 puntu xedapenezko atalean. Bada, horretan guztian, bi alderditan baino ez gatoz bat: edukian eta forman.

Batetik, beraz, ez gatoz bat edukiarekin; izan ere, Bilduk eta Aralerrek gertatutzat jotzen dute oraindik gertatu ez den gertakari bat: hots, Kutxabank pribatizatu egingo dela eta, ondorioz, haren gizarte-ekintza desagertu egingo dela –haatik, ez digute azaltzen zertan oinarritzen diren ondorio horretara heltzeko–; era berean, haien esanetan, BBKk zeharo galduko omen ditu Bizkaian dituen sustraiak, eta desagertu egingo omen da funtsean.

Begira, ez dagokio zinegotzi honi mintzatoki honetatik esatea Kutxabank pribatizatu behar ote den edo ez, baina, zuen joko horri jarraituko diot, zuen baimenaz: Kutxabank pribatizatuta.

Para impulsar este objetivo, la Ley prevé dos medidas que operan de manera consecutiva:

- Obliga a que las cajas que actualmente desarrollan sus actuaciones en régimen de ejercicio indirecto, así como las cajas que tengan un volumen superior a los límites previstos en la norma (como es nuestro caso), se transformen en fundaciones bancarias.

- *Una* vez transformadas en fundaciones bancarias se ha diseñado un régimen jurídico para estas nuevas entidades que refuerza la supervisión financiera en función del grado de control efectivo que ejerzan en la entidad bancaria participada.

Estamos ante una ley que creemos que es fundamental para la recuperación económica, que profundiza en la transparencia de las entidades, en las buenas prácticas de gobierno corporativo, y con ella se pretende favorecer le financiación de la economía.

Dicho esto ahora ya vamos a explicar nuestro posicionamiento en las dos iniciativas presentadas.

Por orden de presentación: en cuanto a la presentada por Bildu y Aralar, nos encontramos en su parte justificativa con 3 párrafos y su parte dispositiva consta de 7 puntos. Pues de todo ello solo hay dos aspectos en los que no estamos de acuerdo: en el fondo y en la forma.

No estamos de cuerdo en el fondo porque Bildu y Aralar dan por hecho un suceso que todavía no ha sucedido (la privatización de Kutxabank) que a su vez va a conllevar la desaparición de su obra social (y no nos explican en que se basan para llegar a esa conclusión) y que la implantación territorial de la BBK va a desaparecer por completo en Vizcaya y que básicamente la BBK dejará de existir.

Miren, no le corresponde a este concejal afirmar en esta tribuna si Kutxabank debe ser privatizada o no, pero, si me permiten, voy a seguirles su juego: Kutxabank privatizada.

Baina zer gertatu da, esaterako, Caixarekin? Burtsan atera zen, Criteriaren izenpean lehenengo, eta, hasiera hartan, industria-partaidetzak baino ez zituen hartzen; gero, banku bilakatu zen Criteria, 2011n, finantza-negozioa xurgatu ostean, Caixabank izena hartuta, eta ordura arte Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona erakundeak kudeatutako banku- aseguru- eta berraseguru-negozio guztiaren gordailuzain bilakatu da.

Hala ere, burtsara atera arren eta pribatizatuta egon arren –zuek horren gogoko duzuen hitza neure eginda–, ezbairik gabe, oso lotura estua izaten jarraitzen du Bartzelonarekin eta Kataluniarekin, eta oso gizarte-ekintza garrantzitsua izaten jarraitzen du. Alegia, zuen iragarpenen arabera Kutxabank pribatizatuz gero gertatuko litzatekeenaren kontra-kontrakoa gertatu da.

Bestalde, forman ere ez gatoz bat ekimenarekin; izan ere, ez dugu uste honelako eztabaidak jorratzeko modu egokiena denik barra-barra eta inolako frogarik gabe erabiltzea *espoliazioa*, *iruzurra, diru-jana* eta halako hitzak, Bilduk ohi duenez –azken-azkenekoz, oraintsu egindako interpelazio batean–.

Horrenbestez, Bilduren eta Aralarren mozioaren kontra bozkatuko dugu.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Eztabaida apur bat bideratzearren, Kutxabankek Durangon zenbat etxebizitza huts dituen jakiteko eskaera ekarri da hona. Hirugarren aldia da gaurkoa. Izan ere, beste batzuetan ere mozio hau berau ekarri izan dugu Bilduk, Aralarrek eta Alderdi Sozialistak, beste hitz batzuekin bada ere. Kutxabanki galdera horiek igorri ote zaizkion jakin nahi dugu.

Argi dago udal honek Kutxabankekin soilik lan egiten duela eta Kutxabanken jartzen duela Durangoko herritar guztien dirua; horrenbestez, neurriak hartzea da logikoena, gure ustez. Hala, bada, erantzuna jaso nahi genuke, eta jakin igorri ote zaizkion galdera horiek Kutxabanki eta erantzunik eman ote duen Kutxabankek.

* **Del Amo Castro jaunak (Bildu)**: Ez gara etorri hona Kutxabanken inguruko eztabaida piztera edo

¿Pero qué es lo que ha pasado por ejemplo con la Calxa?. Salió en Bolsa, primero con el nombre Criteria que abarcaba únicamente las participaciones industriales y después en 2011 Criteria se transforma en un banco al absorber el negocio financiero, llamándose desde ese momento Caixabank, quien va e ser la depositaria de todo el negocio bancario y de seguros y reaseguros que venía gestionando hasta ese momento la Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona.

Sin embargo, podemos comprobar claramente como, a pesar de salir a bolsa y estar, como a ustedes les gusta decir, privatizada, Caixabank sigue estando muy vinculada a Barcelona y a Cataluña y su obra social sigue siendo muy importante. Es decir, he sucedido exactamente lo contrario a lo que ustedes dicen que ocurriría si Kutxabank hiciese le mismo.

Y no estamos de acuerdo en la forma porque, tal y como ha mencionado Bildu (en más de una ocasión (lo pudimos escuchar en una interpelación recientemente), no creemos que hablar de expolio, de fraude, de pelotazos sin aportar ninguna prueba sea la manera más adecuada para un debate de estas características.

Por todos estos motivos votaremos que no a la Moción de Bildu y Arelar.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Por centrar un poco el debate, hoy se trae aquí la solicitud del número de viviendas que tiene en Durago Kutxabank, esta es la tercera vez. Quiero recordar que Bildu, Aralar y el Partido Socialista han traído ya en ocasiones anteriores esta misma moción con otras palabras. Queremos que se nos diga si se han trasladado estas preguntas a Kutxabank.

Es evidente que este Ayuntamiento trabaja exclusivamente con Kutxabank y que deposita el dinero de todos los durangueses en Kutxabank, por lo que nos parece lo más lógico tomar medidas. Nos gustaría que se nos contestara a la pregunta de si se han remitido a Kutxabank estas preguntas y si Kutxabank ha contestado.

* Concejal **Del Amo Castro (Bildu)**: No pretendemos abrir aquí un debate en torno a Kutxabank, ni solicitar su nacionalización o

nazionalizazioa eskatzera edo pribatizazioari buruz berba egitera, ez, hainbat bider egin diren bi galdera zehatzekin etorri gara hona, hau da, zenbat etxe huts daukan Kutxabankek Durangon eta zenbat kaleratze burutu dituen. Hori bakarrik.

debatir sobre su privatización; venimos con dos preguntas concretas, que ya han sido formuladas en otras muchas ocasiones y que consisten en saber con cuántas viviendas vacías cuenta Kutxabank en Durango y cuántos desahucios ha practicado. Simplemente eso.

Gardentasuna izan behar da oinarrizko printzipio bat eta hori eskatzen dugu. Gure ustez etxebizitzaren arazoa oso arazo larria da, eta bankuek parte hartu dute, espekulatu egin dute etxebizitzekin, arrisku handiko inbertsio-espekulatiboak egin dituzte. Ematen du ez dela ezer pasatzen, gero diru publikoarekin estaltzen dituzte euren zuloak eta bankuei ez dizkiete inork kontuak eskatzen, eta bada garaia. Eta erakunde publiko batek kontuak eskatu behar dizkio eta kontrolatu erakunde finantzarioak.

La transparencia debe ser un criterio básico en toda actuación, y es precisamente lo que solicitamos. El problema de la vivienda constituye un problema ciertamente grave, en el que las entidades bancarias han venido participando a través de la especulación inmobiliaria o las inversiones especulativas de alto riesgo. Y, sin embargo, luego se actúa como si no pasara nada; se cubren sus agujeros financieros con dinero público, y nadie les pide cuentas. Ya es hora de que se haga. Una entidad pública debe pedir cuentas a las entidades financieras y controlar sus actividades.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Zuetariko batzuk, gutxienez Landako erakustazokako batzordean zaudetenok, horren inguruko erantzunen bat ikusi duzue.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Algunos de vosotros, por lo menos quienes participáis en la Comisión de Landako Gunea, ya habéis tenido la ocasión de ver alguna respuesta en torno a este tema.

Lehenengo eta behin esan behar dut ez dugula bakarrik Kutxabankekin lan egiten eta hori Ogasun batzordean bertan azaldu izan da, beraz, ez da lan egiten dugun erakunde finantzario bakarra.

En primer lugar, debo aclarar que no solo trabajamos con Kutxabank, tal y como lo hemos especificado ya en otras ocasiones en la Comisión de Hacienda; no es la única entidad financiera con la que trabajamos.

Bestalde galdetu da hemen ea helarazi zaion Kutxabankeri galdera horiek eta erantzuna bai da, behin eta berriro eta, azkena, zuetariko batzuen aurrean nik helarazi nion, horrela eskatu zelako pleno honetako mozio batean, eskutik eskura Durangoko ordezkariari.

Asimismo, se ha preguntado aquí si se le han trasladado a Kutxabank dichas preguntas, y la respuesta es que sí: en reiteradas ocasiones; es más, la última de ellas se la entregué yo misma en mano al representante de Durango, en presencia de algunos de vosotros, siguiendo lo requerido en una moción de este Pleno.

BBKri pare bat bider helarazi zaizkio galderak idatziz eta, horretaz gain, hitzez eta ahoz ere bai. Erantzunik ez dugu ez idaztiz ez ahoz jaso. Eta ez daukat inolako problemarik hori hemen esateko.

A la BBK se le han trasladado las preguntas un par de veces por escrito, y también verbalmente, pero todavía no hemos recibido ninguna respuesta, ni escrita, ni verbal. Y no tengo ningún problema en admitirlo aquí.

Egia da azken urteotan erakunde publikoek dirua jarri dutela erakunde finantzarioen zuloak tapatzeko, baina esan beharra dago, baita ere, BBKn ez dela hori gertatu. Nahiz eta maila orokorrean horrela izan den, BBKren kasuan ez da hori gertatu.

Es cierto que estos últimos años las instituciones públicas han venido aportando dinero público para tapar los agujeros de las entidades financieras, pero también debe decirse que eso no ha sucedido en el caso de la BBK. Aunque en general sí que ha ocurrido, en el caso de la BBK no ha sido así.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Guk eskatzen duguna oso erreza da azaltzeko. Guk 30 milioi inguru kudeatzen ditugu durangarrentzat, durangarren zergetatik, alegia, tasetatik jasotzen dugun dirua. Era zuzen baten edo foru aldunditik jasotzen ditugun ekarpenak dira. Diru hori finantza erakundeekin kudeatu behar dugu, baina irizpide ekonomikoez harago joan behar dela uste dugu. Durangarron 30 milioi horiek erantzukizun sozial bat ere izan behar dute.

Ez gaude eskatzen sekulako erantzukizun soziala: badakigu zelakoak diren finantza erakundeak, eta zilegitasun osoa daukate pribatuak direla kontuan izanda, izan ere, kasu honetan eta, tamalez, pribatizatu egin duzuelako.

Baina etxe-kaleratzeen kasuan oso argi utzi nahi diegu finantza erakundeei, gure herrian, gure herritarren dirua kudeatu nahi badute, ez dugula onartuko etxe-kaleratzeak egotea eta etxe bizitza hutsak baldin badauzkate -jakinda 1.300 durangar daudela izena emanda Etxebiden- etxebizitza horiek durangarren eskuetan jarri behar dituztela, edo, bestela, aukera eman behar dietela durangarrei etxebizitza horiek okupatzeko.

Hori da eskatzen duguna. Hori eskatu diogu BBKri orain arte bakarrik BBKrekin egin dugulako lan. Beraz irizpide ekonomikoez gain irizpide sozialak ere eskatu behar zaizkie erakunde finantzarioei. Ordea, eskualde-buru den Alkateak diosku eskatu eskatu zaiola, baina ez digutela erantzunik eman, eta hori, egia esan, nahiko etsigarria da. Ez dut sinesten ez dela posible jakitea BBKk zenbat etxebizitza hutsik daukan Durangon.

Durangoko Alkateak exijitu beharra die BBKko buruei zenbat etxebizitza huts daukaten esan dezatela. Exijentzia bat da eta ez badute erantzuten ez dute durangarren dirua kudeatuko.

Orain arte galderen bitartez eskatu duguna orain mozio bihurtu dugu, uste dugulako, legealdia amaitu aurretik, esandako hau exijentzia bihurtu behar dela BBKrentzat.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Lo que nosotros solicitamos es muy fácil de explicar. Nosotros gestionamos de cara a la ciudadanía en torno a 30 millones obtenidos a través de los impuestos que pagan los ciudadanos, es decir, gestionamos un dinero que se reúne a partir de las tasas municipales, mediante aportaciones recibidas directamente o a través de la Diputación, y que debemos gestionar junto con las entidades financieras. Sin embargo, creemos que no puede actuarse basándose exclusivamente en criterios económicos, sino que esos 30 millones de todos los durangueses deben concebirse también como una responsabilidad social.

No estamos pidiendo algo extraordinario, una responsabilidad social excepcional; conocemos a las entidades financieras, y, siendo como son entidades privadas, sabemos que actúan con total legitimidad –y también en este caso, al tratarse, lamentablemente, de una entidad privatizada–.

Pero, en el tema de los desahucios, queremos dejarles bien claro a las entidades financieras, que, en nuestro municipio, si quieren gestionar el dinero de la ciudadanía, no aceptaremos que se practiquen desahucios, y que, en el caso de que dispongan de viviendas vacías y sabiendo que existen 1.300 vecinos de Durango dados de alta en Etxebide, deberán poner esas viviendas a disposición de nuestros ciudadanos o deberá ofrecérseles la posibilidad de ocupar dichas viviendas.

En eso consiste nuestra demanda. Es lo que le exigimos a la BBK, siendo hasta ahora la única entidad con la que se trabaja. Por tanto, a las entidades financieras, además de criterios económicos, deben exigírseles también criterios sociales. Pero, sin embargo, la Alcaldesa de esta capital comarcal nos dice que aunque sí que se le han solicitado esos datos a dicha entidad, no nos ha contestado, lo cual resulta bastante desalentador. No me creo que sea imposible saber de cuántas viviendas vacías dispone la BBK en Durango.

La Alcaldesa de Durango debe exigir a los directivos de la BBK que indiquen de cuantas viviendas vacías disponen. Se trata de una exigencia, y, en caso de no cumplirla, dejarán de gestionar el dinero de los ciudadanos de Durango.

Lo que hasta ahora hemos venido solicitando mediante preguntas, lo presentamos ahora a modo de moción, puesto que consideramos que antes de que finalice la legislatura, todo esto debe convertirse en una exigencia a la BBK.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ez dugu ulertzen, Kutxabankek gaur-gaurkoz oraindik erantzunik eman ez badu, zergatik ez dugun honezkero abian jarri beste erakunde batzuekin lan egiteko prozedurarik. Zenbait alderdi politiko aspaldi samarretik ari gara Ogasun Batzordean salatzen nolako tratua ematen dien Kutxabankek herritarrei, erreziboak ordaintzera doazenean; izan ere, Kutxabanken baino ezin dituzte ordaindu erreziboak, eta goizeko hamarrak arte baino ez, gainera. Horren ondorioz, beste erakunde batzuekin jarri ginen harremanetan, lana eskaintzeko. Baina Udalaren diru gehien-gehiena Kutxabanken bidez kudeatzen jarraitzen da. Argi eta garbi esan behar dugu hori.

Etxe-kaleratzeen gaiari helduta ostera ere, gaur-gaurkoz ez dut inor ezagutzen udalerri honetan laguntzen berri jasotzeko telefono-zenbakia zein den dakienik. Horrenbestez, berariaz eskatu nahi diet, bai Alkate andreari, bai Gizarte Ekintzako Presidenteari, jendaurrean eman dezatela telefono-zenbaki horren berri eta eskura dauden laguntzen berri ere bai, beharrezkoa bada.

Amaitzeko, hauteskundeak gerturatu ahala, han agertuko zaigu, agian, Alkate andrea etxetik kaleratzeko prozesuan dauden pertsonen babesle nagusi, baina, gaur-gaurkoz, hori ez da horrela; hori sinestarazi nahi izan diezaguke, Durango-Gasteiz linearen auzian sinestarazi nahi digun moduan, baina egia beste hura da.

* **Del Amo Castro jaunak (Bildu)**: Alderdi Sozialistak aipatu du diru kopuru gehiena BBKn dagoela, nahiz eta gero beste erakunde batzuk egon. BBKk ez du diru publikoa jaso baina bere jarrera besteen antzerakoa da, hau da, jarraitu izan du etxe-kaleratzeak burutzen eta jarraitzen du etxe hutsak izaten beraiekin espekulatzeko.

Galderak egin badira eta ez badugu erantzunik jaso, uste dut neurriak hartzeko momentua dela. Kutxabankek minimo etiko batzuk betetzen ez baditu beste erakunde batzuekin egin beharko dugu lan.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ados nago Bilduk adierazitakoarekin, begiratu beharko da zelan egin, irizpide batzuk finkatu, dagokion prozesu legalean sartu eta aurrera egin.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: No entendemos que si Kutxabank a día de hoy no ha contestado no hayamos iniciado un procedimiento para trabajar con otras entidades. Hace ya tiempo que varios partidos denunciamos en la comisión de Hacienda el trato que daba a la población Kutxabank, el trato que daba a la hora de ir a pagar los recibos, que solo lo podían hacer allí y solamente hasta las diez de la mañana. A raíz de eso, se contactó con diferentes entidades para ofrecerles trabajo. Pero el grueso del dinero municipal sigue trabajándose con Kutxabank, eso hay que dejarlo claro.

Volviendo a los desahucios, a día de hoy no conozco a nadie en este municipio que conozca el teléfono para poder informarse de las ayudas. Por favor, pido a la señora Alcaldesa, a la Presidenta de Acción Social, que haga público ese teléfono y si es necesario, las ayudas existentes.

Para finalizar queremos decir que a pocos meses de las elecciones tal vez nos encontremos con que la señora Alcaldesa va a ser la abanderada de ayudar a las personas que se vean en procesos de desahucios, pero a día de hoy eso no es así, nos lo puede hacer creer como nos lo quiere hacer creer con la línea Durango-Gasteiz, pero la realidad es esta.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (Bildu)**: Tal y como mencionaba el Partido Socialista, la mayor parte del dinero lo gestiona la BBK, aunque también existen después otras entidades. Es cierto que la BBK no ha recibido dinero público, pero su actitud es similar a la de otras entidades, en tanto en cuanto ha seguido efectuando desahucios y especulando con las viviendas vacías de las que dispone.

Si tras trasladarles nuestras preguntas no hemos recibido respuesta, creo que ha llegado el momento de tomar medidas. Si Kutxabank no cumple unos mínimos éticos, deberemos trabajar con otras entidades.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Estoy de acuerdo con lo señalado por Bildu; deberá analizarse el modo de hacerlo; deberán fijarse ciertos criterios, iniciar el proceso legal correspondiente y avanzar por esa vía.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Esan dugu esan beharrekoa. Ea, orain, posible den hau aurrera ateratzea eta betetzea. Bankuei presioa egiteko aukera daukagu etxe-kaleratzeen kasuan, eta erabili egin behar dugu: durangarron dirua kudeatu nahi badute baldintza batzuk bete beharko dituzte.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: BEDERATZI, 5 Bildu, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BEDERATZI, 7 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

